

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udaltzaingoak lau patruila auto elektriko berri izango ditu

Ibilgailu hauek zerbitzu guztiz jasagarri bat lortzeko beste urrats bat dira.

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako Udaltzaingoari lau ibilgailu patruila auto elektrikoak hornitzeko (renting sistema) kontratazio espedientea.

Eneko Goia alkateak nabarmendu duenez, “Udalak bere zerbitzu guztietan ingurumenaren jasagarritasuna lortzeko ematen dituen urratsen beste adibide bat da hau”.

Beraz, patruila-auto berriek %100 elektrikoa den erregaia (0 igorpeneko motorra) duten autoak izan beharko dute, karga-sistema barne, eta gutxienez 300 km-ko autonomia izan behar dute.

Ibilgailu horiek Udaltzaingoaren flota berritzeko beharra asetzen dute, patruilek etengabe erabiltzen baitituzte auto horiek eguneko 24 orduetan, eta horrek higadura nabarmena eragiten du.

Renting kontratuak 4 urteko iraupena izango du, ibilgailuak ematen direnetik hasita (gehienez ere 90 eguneko hornidura epea), eta kontratua luzatzeko aukera egongo da. Lizitazioraren urteko aurrekontua 69.696 eurokoa izango da.

Udalaren lokalak lagatzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du zenbait lokal lagatzeko proposamena, herritarren erakunde desberdinei.

Horrela, zuzeneko esleipenaren bidez lokalak erabiltzeko emakida administratiboa ematen zaie ondoko erakundeei: Txasiss Kultur Elkarte (Juan Carlos Guerra 38, 3. lokala); IZBE - Intxaurrondo Bizilagun Elkarte (Intxaurrondo 54); Bizi Bide, Al-Anon eta Hazi Ikasi Eskola laguntza solidarioa (Leire 1, 2. lokala); Txanpontxo Kultur Elkarte (Julio Urkijo 38).

Kontzesioa doakoa da eta urtebeterako ematen da, automatikoki urtez urte luzatu ahal dena, gehienez ere lau urtez.

Gainera, ondare izaerako bi lokal dohainik eta urtebeterako uzten dira, gehienez ere lau urtera arte luzatu ahal direnak, Kristonkino Colectivo Audiovisual elkarteari (Katalina Eleizegi 44, 3. lokala); Plazara Goaz Euskara Batzordea (Zarategi 63, beheko lokala eskuinean eta sotoa).